

Erabiltzailea

Pasahitza

Ni gogoratu

[Erabiltzailea/Pasahitza gogoratu](#)

Osteguna, 2012-05-17

VILLABONA
AIZTONDOKO **hitza** info

- [Ekitaldiak](#)
- [Iragarki Laburrak](#)



- [Kirola](#)
- [Kultura](#)
- [Aisia](#)
- [Gizartea](#)
- [Ekonomia](#)
- [Politika](#)
- [Hartu hitza](#)
 - [Zorion Agurrak](#)
- [Herriak](#)
 - [Aduna](#)
 - [Amasa-Villabona](#)
 - [Asteasu](#)
 - [Larraul](#)
 - [Zizurkil](#)
- [Paperekoa](#)

Martin Garitano ahaldun nagusiak bat egin du Larraulgo eskola txikiarekin

2012/05/17

[Euskara](#), [Gizartea](#), [Hezkuntza](#), [Larraul](#), [Paperekoa](#), [Politika](#)

Nork [Villabona-Aiztondoko Hitza](#)

Larraulgo herriak Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiaren eta Zigor Etxeburua Euskara zuzendariaren bisita izan zuen, atzo. Bertatik bertara, herriko eskola txikiaren egoeraren berri jaso nahi izan zuten.



Udaletxearen aurrean egin zioten harrera

Martin Garitanok Larraulgo eskolari [bere babesa](#) adierazi zion, eta «Gipuzkoak herri txiki asko ditu, eta beharrezkoa da hauek garatzea», esan zuen. «Eskolak dira herri hauen bihotza», gaineratu zuen. Horregatik, «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza arduradunei eskatzen diet Larraulen 12 urtera arteko zerbitzua eman dezatela», esan zuen.

Udaletxe aurrean harrera egin ostean, lehenik eta behin, haur eskola eta eskola txikia ezagutu zituzten. Bertako haurrekin eta irakasleekin hitz egiteko aukera izan zuten. Nola lan egiten duten, eta zein arazo dituzten argitu zizkieten, eta jarraian, bilera bat izan zuten eskolaren egoeraz .

Xabier Mujika Larraulgo alkateak, ahaldun nagusiak bileran azaldutako babesa eta Larraulgo eskola sustatzeko konpromisoa eskertu zituen. «Egun 8 urtera arteko eskola zerbitzua izanagatik, udalak eta guraso elkarteak legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztenez, 12 urte arteko zerbitzua herrian izan bitartean lanean jarraituko dugu», adierazi zuen.



Ikasleekin egon zen Garitano

Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikietako Gurasoen Koordinakundeko lehendakariak, Gipuzkoako eskola txikiek foru aldundiaren babesa sentitzen dutela nabarmendu zuen, eta eskola txikiek herrian duten garrantzia adierazi zuen: «Heziketa emateaz gain, herri proiektua dira, eta herri txikien bizi iraupenerako elementu nagusi dira».



Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoekin


Zigor Etxeburuak, berriz, herri txikiek euskarari egiten dioten ekarpena azpimarratu nahi izan zuen: «Herri eta eskola txikietan egiten ari diren ahalegina guztiz funtsezkoa da euskararen jarraipenerako eta euskarak bizirik irauteko».

Murgil Guraso Elkartearen izenean, Estitxu Eizagirrek hitz egin zuen: «Eusko Jaurlaritzak Eskola Txikien Festa egiteko urtero eman izan duen diru laguntza aurten ukatu egin du, eta kolokan jarri zuen aurtengo festa. Baina, Gipuzkoako Aldundiaren, urteroko beste hainbat eragileren, eta Asteasuko zein Larraulgo enpresen babesagatik posible izango da ekainaren 3ko festa, eta hau 25. urteurrenak merezi bezalako izatea».

Zortzi urte arteko zerbitzua dute herrian, eta ikasturte berria hasi aurretik, Hezkuntza sailarekin bildu nahi dute, zerbitzua beste ikasturte batez luzatzeko. Hamabi urtera artekoa lortu bitartean lanean jarraituko dute. Egun 15 ikasle ditu Larraulgo eskolak.

Etiketak: [Eskola Txikiak](#), [Gipuzkoako Foru Aldundia](#), [gizartea](#), [Hezkuntza](#), [larraul](#), [Martin Garitano ahaldun nagusia](#), [Udala](#)

Iruzkina



Erabiltzailea Pasahitza

[Izena eman](#) Berriketan.

•



Nabarmenak

Kantu Eguna eta Biatloia Maiatza Saltsanen

[Nabarmenak](#), [Zizurkil](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)

Maiatza Saltsan egitarauaren barruan Kantu Eguna ospatuko dute bihar, larunbata. 12:00etan Kantu Jirakoak Zizurkil goiko kaleetan ibiliko dira. 14:00etan bazkaria egingo dute zimiterioan, eta ondoren, [...]

[Irakurri gehiago](#)

Begiraleen azterketa eta haurrentzako udalekuak

[Aisia](#), [Nabarmenak](#), [Zizurkil](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)

Oporretan Euskarazerako begiraleen azterketa hilaren 26ean egingo dute Atxulondon, 10:00etan. Euskararen erabilera sustatzeko antolatu diren udalekuetan, hurrek izena emateko epea zabalik dute, ekainaren 15a bitarte. [...]

[Irakurri gehiago](#)

Hedabideak




- [Alegialdeko Hitza](#)
- [Anoetaldeko Hitza](#)
- [Ibarraldeko Hitza](#)
- [Leitzaldeko Hitza](#)
- [Tolosako Hitza](#)
- [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)



Bilatu zure inguruko sagardotegia

Bilatu

Eguraldia-en Villabona

Data	osg 17	ost 18	
	12-24	00-12	12-24
Zeruaren egoera			
Gutx./Gehi. Temp. (°C)	14 / 23	13 / 18	

© AEMET ▶



Aurki gaitzazu Facebooken

facebook




Tolosaldeko Eta Leitzaldeko Hitza

Atsegin dut

2,376 pertsonek atsegin dute Tolosaldeko Eta Leitzaldeko Hitza.




Ibarako



Ander



Natalia



Asier



Facebookeko plugin soziala

Berriketan.info [\[RSS\]](#)

Viewing item 1 to 5 (of 5 items)

- [Album](#)
- [Guneak](#)
- [Events](#)
- [Facestream](#)
- [Gaiak](#)
- [Imported blog](#)
- [Profila](#)
- [Tweetstream](#)



• [Mikel Goñi](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Herrerako garagardo azoka, iruditan](#) gunean duela 1 minutu · [Ikusi](#)

Lau egun gelditzen dira Herrerako garagardo azokaz gozatzeko. Gaur, osteguna, eta bihar, 18:00etatik 24:00etara; etzi, 12:00etatik 24:00etara; eta igandean, 12:00etatik 23:00etara. Denbora horretan guztian, 35 garagardo mota, freskagarriak, saltxitxa eta ukondoa dastatu ahal izango dituzte bisitariak. «Bejetarrianoek zorte txarra izan dute», azaldu du Nagore Alkarreta Txirritako Txuriurdinak lagunarteko kideak. «Antolatzen dugun lehen urtea da eta



• [berria](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du: [Fiskalak pixka bat jaitsi egin ditu 11 auzipeturen kontrako kartzela eskaerak, eta Antia eta Ligerzana absolbitzearen alde azaldu da](#) duela 26 minutu · [Ikusi](#)

Bederatzi lagunen kasuan espetxe zigor eskaera bederatzi urtetik seira murriztu du eta beste biren kasuan zazpitik bostera. Gaur bukatuko da epaiketa, ondorioen ondoren.



• [Azkoitiko Hitza](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Brigadan hiru langile berri hartuko ditu Udalak](#) gunean duela 27 minutu · [Ikusi](#)

Udal brigada indartzeko asmoa du Udalak, herrian egin beharreko zenbait lan bere kargu hartu eta dirua aurrezteko xedearekin. Horretarako hiru langile gehiago hartuko ditu brigadarako: balio anitzeko hiru peoi, horietako bi makinistak. Lanaldi osorako lanpostuak izango dira eta kontratua aldi baterakoa, baina gutxienez bi urtekoa izatea aurreikusten da. Lan eskaintza maiatzaren 21ean (astelehena) egingo da *publiko* [...]



• [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Kantu Eguna eta Biatloia Maiatza Saltsanen](#) gunean duela 40 minutu · [Ikusi](#)

Maiatza Saltsan egitarauaren barruan Kantu Eguna ospatuko dute bihar, larunbata. 12:00etan Kantu Jirakoak Zizurkil goiko kaleetan ibiliko dira. 14:00etan bazkaria egingo dute zimiterioan, eta ondoren, Amalur taldearen kantu saioa eta erromeria egongo da. Hilaren 20an, igandean, Zizurkilgo XIV. Biatloia jokatu da 10:00etatik aurrera, goiko plazan.



[Eider Mugartegi](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Gazte batzarra egingo da, barikuan, kultur aretoan](#) gunean duela 45 minutu · [Ikusi](#)

Markinako Gazte Asanbladak bide barriak zabaldu nahi ditu, hori dela eta, gazte batzarra deitu dute biharko. Batzarra 20:30etan egingo da kultur aretoan.

Azken Eztabaidak

- markel(e)k [Jexux Mari Irazu: “Finalera iristea da nire helburua eta ilusioa”](#) bidalketan
- aitor(e)k [Pilota jaialdia eta txakolin dastaketa egongo dira bihar Amasan](#) bidalketan
- Xabier(e)k [Fraisoroko ama ezkongabeen eta hauen haurren ezkutuko istorioak argitaratu dituzte](#) bidalketan
- elordi(e)k [Hutsik egiten ari ez dena, euria](#) bidalketan
- Villabonatarra(e)k [EAJ-k hiru alkategai aurkeztu ditu](#) bidalketan

© Tolosa Herria Hedabideak, S.M.

Araba Etorbidea 5, atzea, 20400 - TOLOSA - Tel.: 943 655 695 - Faxe 943 650 018 - E-posta: villabona-aiztondo@hitza.info



Gipuzkoako Foru Aldundia